

Ikastetxeen hobekuntza pedagogikorako prestakuntza integrala

BeAtarrei, aholkulariei, zuzendaritza-taldeei
eta iraskasleei zuzenduta

Otsailaren 22an | 17:00 - 20:30

LEHEN MODULUA: prestakuntza

Ikastetxeetako hobekuntza-prozesuetarako baldintzak: plangintzarako tresnak.

Eskoletan hobekuntza-prozesuak oso konplexuak dira. Beharrezkoa da prozesu horiek planteatzen dituzten erronkak ezagutzea eta antolatzea ahal den irizpide egokiarekin aurre egiteko.

Lehen saioak bi helburu nagusi ditu: hobekuntza-prozesuek duten konplexutasunaz jabetzea eta berrikuntza arduradunak hobekuntza-prozesuaren azterketa-, antolaketa- eta plangintza-prozesuan laguntzeko dituen tresnak eta estrategiak ezagutzea.

Saioaren edukiak

- Eskolako aldaketa- eta hobekuntza-prozesuen konplexutasuna.
- Aldaketa-prozesurako ezinbestekoak diren bost baldintzak: beharra, konfiantzazko erreferentziak, konpromisoa, antolaketa- eta komunikazio-bideak, eta jakintza/esperientziaren iturri-liderrak.
- Eskoletan aldaketa- eta hobekuntza-prozesuetan agertzen diren rolak eta aldaketa-prozesuaren inguruan taldea kohesionatzeko irizpideak.
- Hobekuntza-prozesuak aztertze eta planifikatzeko tresnak: hezkuntzaren kalitate-indizea eta hobekuntza-plana egitea.

20:30 eguneko saioaren amaiera



20 orduko homologazioa



Otsailak 22, 23 eta 24



Ost. 17:00-20:30 | Ost. 17:00-20:30
Lar. 9:30-13:00 / 14:30-18:00



Andoain, Basteroko Ekitaldi Aretoa



Jordi Mateurekin

Aholkulari, formatzaile, CAIEV
formazio elkartearen eta Ca
L'Aulet eskolaren sortzailea



Otsailaren 23an | 17:00 - 20:30

Taldea antolatzeko eta kudeatzeko agindu sistemikoak eta egiturak. Berrikuntza arduradunaren funtzioa eta lan-metodologiak.

Eskola hainbat rol eta erantzukizun dituen testuinguru profesionala da. Hezkuntzaren ikuspegi sistemikoak planteamendu eta tresna oso funtsezkoak eskaintzen dizkigu gizataldeen konplexutasuna kudeatzeko, bai aldaketa-prozesua errazteko, bai agertzen diren gatazka bideratzeko.

Saioaren edukiak

- Ikuspegi sistemikoa hezkuntzan.
- Eskolako testuinguruetako ordena eta desordena sistemikoak. Eskolan analisirako tresnak.
- Talde pedagogikoa antolatzeko, koordinatzeko eta gainbegiratzeko egiturak eta kanalak.
- Berrikuntza arduraduna antolaketa-egituran kokatzea eta haren eginkizunak zehaztea zuzendaritza-taldearekiko, talde pedagogikoarekiko, etab.
- Desordenei eta gatazkei laguntzeko irizpideak, dinamikak eta tresnak: taldearen artean, talde sustatzailearekin, familiekin, etab.

20:30 eguneko saioaren amaiera

Otsailaren 24an | 9:30-13:00

BIGARREN MODULUA: berrikuntza arduradunaren bidelaguntza

Egitura pedagogikoen ezaugarriak eta azterketa eta aholkularitzako lehentasunak.

Hobekuntza-prozesuaren helburuak ezarri ondoren, egiturazko baldintzak sortu behar dira, hobekuntzak praktika pedagogikoan gauza daitezen. Horretarako, irakasleek prozesu pedagogikoak egituratzeko erabil ditzaketen egitura pedagogikoak ezagutu behar dituzte.

Eguneroko egitura pedagogikoak hezkuntza-proiektuaren printzipioei eta hobetzeko/aldatzeko planaren helburuei erantzun behar die.

Saioaren edukiak

- Hezkuntzaren helburuak ikastetxearen hezkuntza-proiektuan islatzea.
- Etapa bakoitza egunerokoan antolatzeko ereduak eta tresnak.



- Eskola batek izan ditzakeen egitura pedagogikoak definitzea: tailerrak, borobilean, zirkulazio autonomoa, nahitaezko zeregin dibertsifikatuak (TODak), giroak, proiektuak, prozesuak, etab.
- Esku-hartze moten ezaugarriak: modelatzea, praktika gidatua eta praktika independentearen behaketa.
- Programazioa eta ebaluazioa hobekuntza-prozesuaren zerbitzura dauden tresna arin eta funtzional gisa.
- Egitura pedagogikoak behatzea eta baloratzea, IHPren helburuen arabera.
- Berrikuntza arduradunaren lehentasunak eta ibilbideak ezartzea.

13:00-14:30 bazkaltzeko tartea

Otsailaren 24an | 14:30-18:00

Praktika gogoetatsuen metodologia: talde dinamiketan eta irakasle taldearen arteko komunikazioan sakontzea.

Hobekuntza prozesu ororen azken helburua talde pedagogikoak bere praktika pedagogikoari buruzko eguneroko gogoeta-kultura garatzea da.

Praktika gogoetatsuen metodologiak oso egitura baliagarria eskaintzen du prozesu honetarako. Praktikari berari buruzko behaketatik abiatzen da, gero hura aztertzeke, hari buruz hausnartzeko –batzuetan horrek informazio iturrietara eta kanpoko esperientziara joatea eskatzen duelarik– helburuak, irizpideak eta hobekuntza praktikak adosteko eta praktikara eramateko. Azkenik, ebaluatu ondoren berriro ekiten zaio praktika gogoetatsuen zikloari.

Saioaren edukiak

- Hausnarketa-praktikaren faseak eta horiek gauzatzeko tresnak.
- Fase bakoitzerako talde-dinamikak.
- Talde-lanerako eta bilerak kudeatzeko irizpideak.
- Berrikuntza arduradunaren entzute- eta itzultze-motak.
- Aukerak irekitzen dituzten komunikazio-parametroak. Epaiaketak bideratzea.
- Gatazkak irizpide pedagogikoen arabera kudeatzeko estrategiak.
- Taldea lan-eremuan zaintzeko estrategiak eta tresnak.

18:00 formazioaren amaiera